

infraganti JOXE MARI IZETA

GuraSOS elkarteko lehendakaria da Joxe Mari Izeta. Plata-forma horren bueltan bildutakoek ekitaldi konkretu baterako laguntza eskatu zioten eta, kasik konturatzerako, lehendakaria zen. 2016ko maiatza zen eta geroztik Gipuzkoako Foru Aldundia Zubietan egitekoa den erraustegiaren bueltan gauza asko gertatu dira. Herritarrek bultzatutako elkarteak gorakadak eta makalaldiak izan ditu, sasoi beroagoak eta hotzagoak jendearen bultzadari dagokionez.

Gaurko egunez, erraustegia eraikitze lanak hasita daude eta GuraSOS elkarteak borrokan segitzen du, garbi dutelako ez dela berandu. «Artean, askoz merkeagoa da erraustegia geratzea proiektuarekin aurrera jarraitzea baino».

«Nik uste dut GuraSOSe diagnosian asmatu egin zuela sortu zenean: gai hau muturreraino politizatu da, alderdien arteko borroka bihurtu da, elkarri egurra emateko modu bat, eta, ondorioz, herritar asko desaktibatu egin dira. Herritarrak ikusten duenean gai baten erabilera harago doala, hondakinen kudeaketatik harago dagoela, apartatu egiten da, bere eguneroko gauzetara erretiratzeko da».

2016ko udaberri hartan erraustegia bultzatzen duten alderdi politikoek zuzen jarraitzen zuten beren helmugara bidean. Herritarrak, aldiz, desaktibatuta zeuden. Krispazio politiko haren erdian, GuraSOSe gaia jendartera ekarri beharra ikusten zuen. «Guraso bezala, gure seme-alaben osasuna erdigunera ekartzeko beharra ikusten genuen. Nik uste

Kezka batetik sortu zen GuraSOS elkarte; Zubietako erraustegiak herritarren osasunean eragingo duen kaltearen kezkatik. Joxe Mari Izeta elkarte horretako lehendakaria da eta kontziente da borrokan hasi zirenetik asko aldatu dela gudu-zelaia. Batez ere, orain, obrak martxan daudelako. Baina garbi dauka ez dela berandu.



Joxe Mari Izeta, GuraSOS elkarteko lehendakaria, Zubietan. Erraustegiaren kontrako borroka ez dela bukatu garbi dute elkarte horretan.
Jon URBE | FOKU

jendartearen parte handi bat kezkatuta bazegoela, baina norbaitek lidergoa hartzeko beharra zegoen. Guk hasieratik oso garbi izan dugu ikuspuntua: osasun arazo bat da, gure seme-alaben etorkizuna dago jokoan. Hortik abiatuta, ahalik eta mugimendu anitzena sortzea izan da helburua, alderdi politikoetatik aparte. Segur aski, gure lanik zailena eta, aldi berean, gure arrakasta handiena horixe izan da: politikoki inon ez kokatzea lortu izana. Askok saiatu dira, alde batekoak eta bestekoak, gu nonbait kokatzen. Gu saiatu

ten ezertxo ere egin, aurreko PIGRUGa luzatu baino ez. Eta parte hartzearekin, ezer. Gutxien inporta zitzaiena osasuna edo jendartea zen. Borroka politiko bete-betean sartuta zeuden. Aurretik EH Bilduk geldiarazitako proiektua berriaz martxan jartzera zihoa zen. Finean, irabazleen eta galtzaileen errelatoa osatu nahi zuten, ez besterik. Bide horretan, eta artean obrak martxan jartzeko zeudela, jende asko hurbildu zitzaigun. 2016ko udazkenetik 2017ko apirilera arte, GuraSOSe goraldi bat izan zuen, jendearen babes bat. Garbi ikusi zen jendartea kezkatuta zegoela erraustegiaren gaiarekin, baina desaktibatuta zegoela».

AURRERA DOAN TRAKTORE HANDIA

Giro hartan, 2017ko apirilean esleitu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak erraustegiaren lanak. «Hortik aurrera, sekulako beherakada sumatu genuen; bai kanpora eta bai barrura begira. Ordura arte lan asko egin zuen jendea nekaturta zegoen, eta etsituta. Egia da politikariak ekintza burutuen politikarekin jokatzeko dutela. Aurrera eta aurrera doan traktore handi bat balira bezala. Herritarrek mila arrazoi daukate traktorearen aurrean jartzeko, baina traktoreak zapaldu egiten zaitu eta aurrera jarraitzen du. Nire sentsazioa hori izan da. Zuek nahi duzue na esan, baina hau aurrera doa. Guk badaukagu makinaria aski –baita komunikabideetan ere–, aurrera jarraitzeko».

Behin obrak martxan daudela, zer? «Guk ezin dugu besterik gabe etxera erretiratu, borrokan segitu behar dugu. Hau ez da bukatu, oraindik gelditu daiteke eta guk oso barneratuta daukagu: Gipuz-

gara alderdi guztiei esaten gu arduratzen gaituena osasuna dela, ideologiaz harago».

BORROKA POLITIKOA

2016ko maiatzean egoera «historikoa» zen Izetaren ustez. «Dena egiteko zegoen. Obrak esleitu gabe zeuden. Nik hase-re handia daukat erakundee-kin, dena desberdin egin baitzitekeen. Hondakinen plan berria –PIGRUG 2017-2030– egiteko zegoen; Europak eskatzen duelako eta gizalegeak eskatzen duelako, partaidetza prozesuak martxan jartzea derri- gorrerzkoa zen. Baina ez zu-

koak benetan erraustegirik nahi ez badu, ez da egingo». GuraSOS bere bidean eragile askorekin bildu da eta jaso duen sentipena garbia da, «ez dugu erraustegiaren alde dagoen herritarrik ezagutu. Batzuk, akaso, bere alderdiaren mandatua betetzeko prest daude, baina ez daude erraustegiaren alde».

Baina traktoreak aurrera segitzen du. «Nola atera garen gu krisi horretatik? Aldundiak egin ez duena guk egitea erabaki dugu. Herritarren bultzada eta diruarekin –kutzak saltzen ari dira dirua biltzeko; Gurasos.org webgunean daude eskuragarri– PIGRUG berria prestatzen ari gara, gauzak egin behar diren bezala egiten». Oraintxe, beraz, Hitzartu gizarte ekimenean sartuta daude buru-belarri. Finean, berez Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri behar zuen PIGRUG berria diseinatzeko parte hartze prozesua da eta hiru oinarriren gainean ari dira lanean: gizarte-kohesio handiagoa; ingurumena eta osasuna gehiago babestea eta Europako politikak zorrotzago betetzea.

«Duela gutxi Tabakaleran parte hartze prozesu bat egin genuen. Oso garbi geratu ziren bi gauza. Batetik, ez dela informazioz egin; propaganda asko egon da, baina ez informazio gardenen. Komunikabide batzuk, informatu ez ezik, beste guztia egin dute. Eta, bigarrena, osasunarekin ez dela jokatzeko. Hori garbi daukate herritarrek. Erraustegia inork ez du nahi, baina jende askok ez dauka informazioz zer egin daitekeenaren inguruan».

Erraustegiaren proiektua diseinatu zenetik gaur arte, panorama izugarri aldatu da. «PIGRUGa egiten ari diren in-



geniariak garbi esan digute; erraustegiaren proiektua egin zenean erabat gairak gaitzen zuten zegoen. Orain dagoeneko bikoiztuta dago eta datozen 10-15 urteetan Europako agindua betetzen badira, are gehiago egongo da».

Alegia, erraustegiari jaten emateko adina zabor ez dela sortzen eta ez dela sortuko. Beste arrisku bat ere jarri du mahai gainean Izetak: «Oso kontuan hartu behar dugu erraustegiaren kudeaketa pribatizatu egin dela eta arautan zein zabor mota erre behar den zehazten da, baina ez da zehazten nongo zaborra izan behar duen. Kontuz horrekin».

ONARTU BEHARREKO GAITZA?

Jendarteak, oro har, oso garbi dauka erraustegia kaltegarria dela osasunarentzat. «Baina jende askorentzat onartu beharreko gaitz bat bezala da. Jende askok esaten du, 'eta zer

«Politikariak ekintza burutuen politikarekin dabilta; aurrera doan traktore handi bat bezala. Mila arrazoi daude parean jartzeko, baina traktoreak zapaldu egiten zaitu eta segi»

«Guk etxeko lanak egin ditugu, erraustegiaren alternatiba diseinatu dugu. Oraindik garaiz gaude, erraustegia martxan da, baina obra handienak egiteko daude»

egin dugu zaborrarekin?'. Jendeari informazioa falta zaio, ez delako eztabaida patxadatsu bat». Ez da eztabaidarik egon, proiektuaren defendatzaileei ez zaielako komeni segur aski. «Nahi duten bakarra proiektua egitea da. Eztabaida sano bat egongo balitz, proiektua bera bakarrik eroriko litzateke, guk kontra egiteko beharrik gabe».

GuraSOSek hamaika aldiz gonbidatu du Aldundia bere ekimenetan parte hartzera, «bere informazioa eta ikus-

puntua agertzeko aukera eman diogu, baina ez da inoiz inor etorri». Are gehiago, sortu zenetik behin eta berriz eskatu diote bilera bat Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiarri eta ez dute lortu harekin biltzea. «Kezkatzekoa da Aldundiak guraso talde bat ez hartu izana. Gure kezkak entzun ditzaten elkartu nahi dugu haiekin eta ez dira gai izan horretarako ere, herritar talde bat entzuteko», salatu du Izetak.

Urte hasierarako espero dute PIGRUG berria esku artean izatea eta alderdi politiko guztiei helaraziko diote. «Guk etxeko lanak egin ditugu, erraustegiaren alternatiba diseinatu dugu. Oraindik garaiz gaude, erraustegia martxan da, baina obra handienak egiteko daude. Bi labeak, garestienak, ez dituzte ekarri. Ez da berandu, erraustegiaren kontra segitzeko garaiz gaude». •

Amagoia Mujika Telleria